

Elika SUSFOOD ERA-NET sarearen kide da, eta **Eusko Jaurlaritzaren** Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila ordezkaten du.

SUSFOODen helburua da zientzia-arloan lankidetzaren areagotzea estatu kideen eta bazkideen artean, ikerketa-lanen ondorioz elikagaiak ekoizteko sistema iraunkorrak gara daitezen elikakate osoan (ekoizpenetik hasi eta kontsumitzailearengana iritsi arte).

ZER DA ERA-NETA?

ERA-NETA lanabes bat da, Seigarren Programa Markoan osatutakoa, Europan potentzial zientifikoa eta teknologikoa banandu egiten dituzten oztopoak gainditzeko.

ERA-NETAk sareak dira, erakunde eta elkarte publikoei euren ikuspegiak koordinatzen eta elkarlanean aritzen laguntzen dietenak.

"Sare bidezko konexioek" ez dakarte, hasiera batean behintzat, baliabide finantzarioak bateratzea, eta, ondorioz, oso egitura ezberdinak izan ditzakete. Sare horien oinarritzako alderdietako bat **informazioa sistematikoki trukatzeko** da.

ZERGATIK DA BEHARREZKOA ELIKAGAIEN IRAUNKORTASUNAREKIN LOTUTAKO ERA-NET SAREA?

Europako Batzordearen "Europako Estrategia 2020" proiektuaren arabera, Europar Batasunaren ikuspegia da etorkizun iraunkorra lortzea, lana bermatzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea. Helburu horiek lortzeko alderdi giltzarrietako batzuek honako hauekin dute lotura: iraunkortasuna, berrikuntza, hazkunde ekonomikoa eta lehiakortasuna, enplegua eta gizarte- zein lurralde-kohesioa.

Europar Batasunak une honetan esku artean dituen erronka handiei bermez aurre egiteko, beharrezkoa da iraunkortasunarekin zerikusia duten erantzunak ematea honako arlo hauetan:

1. Elikagaiak eskura izatea, eta horretarako hazten ari den populazioarentzat elikagaien ekoizpena bermatzea.
2. Elikagai iraunkorrak ekoiztea, energiaren, uraren eta natur baliabideen eskasiari zein klima-aldaketari aurre egiteko.
3. Elikagaiak eta osasuna, gero eta herritar

adindun gehiago dituen gizartearen bizi-kalitatea hobetzeko eta bermatzeko.

ZEIN DA SUSFOOD-EN HELBURUA ETA NOLA LORTUKO DU HELBURU HORI?

Susfood-en helburua da elikakatearen iraunkortasunean laguntzea eta Europako sareko partaideen ikerketa-programen arteko koordinazio bultzatzea. Horretarako, honako ekintza hauek gauzatuko ditu:

1. Informazioa trukatzeko eta multzokatzeko, praktikarik egokiena identifikatzeko elikadura iraunkorraren arloan.
2. Ikerketa-programak estrategikoki bideratzea, gainjartzeak ekiditeko eta beste alderdi batzuk jorratzeko.
3. Jarduera bateratuak kudeatzea (besteak beste, proiektuetarako deialdiak), arlo horretan egiten diren ikerketa-jardura estrategikoak babesteko.

Elikakatearen iraunkortasunean laguntzea eta partaideen ikerketa-programen arteko koordinazio bultzatzea.

ZEINEK HARTZEN DU PARTE ERA-NET HONETAN?

Partzuergoa Europako 25 gobernu eta erakunde osatzen dute, hain zuzen ere, elikadura-arloko ikerketa-programen kudeaketaz eta finantzazioaz arduratzen direnak.

Honako hauek dira ordezkaturak dauden herrialde eta eskualdeak: Frantzia, Alemania, Estonia, Danimarka, Suedia, Espainia, Belgika, Finlandia, Holanda, Italia, Eslovenia, Polonia, Norvegia, Turkia, Erresuma Batua, Errumania eta Euskadi.

Europako sare hau garatu ahal izateko, Europako Batzordeak Susfood finantzatu du (bi milioi) 36 hilabetetan.

ZEIN DA SARE HONEN IBILBIDE-ORRIA?

Urtarrilaren 27an egin zuten lehenengo bilera (kick-off meeting), Parisen, ERA-NETeko kide guztiek. Lehenengo bilera hartan proiektua abiarazi zuten eta sarea garatzen hasi ziren partaideen artean. Halaber, proiektuaren koordinazioaren eta kudeaketaren oinarri izango diren ildo nagusiak aurkeztu zituzten, eta, horrez gain, "lan-paketeetan" (work packages) bete beharko diren edukiak eta

Susfood-en strategiaren oinarria da bost zutabe nagusi abiaraztea eta 2011tik 2013ra bitartean garatzea.

epeak zehaztu zituzten.

Ildo horretan, Susfood-en strategiaren oinarria da bost zutabe nagusi abiaraztea eta 2011tik 2013ra bitartean garatzea. Honako hauek dira bost zutabeak:

1. Gaur egun egiten ari diren ikerketak eta etorkizuneko beharrak aztertzea eta mapa egitea.

2. Ikerketa-arloan nazioaz gaindiko agenda estrategikoa osatzea.
3. Lanabesak eta prozedurak garatzea, nazioz gaindiko finantza-jarduerak ezartzeko.
4. Hedatzea.
5. Susfood sarea koordinatzea eta kudeatzea.

Ikerketa-proiektuak finantzatzeari dagokionez, aurreikusi da Susfood sarearen lehenengo deialdia, gutxi gorabehera, 2013ko otsailean egingo dela. Horretarako, beharrezkoa izango da aurretik definitzea, batetik, sarean sarrera izan dezaketen proiektuen gaiak (topics) eta, bestetik, deialdi horretan parte hartuko duten finantzatzaileen taldea.

LOTURA INTERESGARRIAK



Europako Batzordea-CORDIS
Innobasque

ONDORIOAK

- SUSFOODen helburua da laguntzea elikakate osoan **elikagai iraunkorragoak ekoizteko sistemak** ikertzen eta garatzen.
- EPartzuergoak **Europako 25 gobernuk eta erakundek** osatzen dute, hain zuzen ere, elikadura-arloko ikerketa-programen kudeaketaz eta finantzazioaz arduratzen direnak.
- 2011ko abenduan eman zitzaion hasiera ofizialki Susfood sareari, eta **36 hilabeteko** epean garatuko da.
- Aurreikusi da, **gutxi gorabehera, 2013ko otsailean** egingo dela ERA-NET honetan sar daitezkeen ikerketa-proiektuak finantzatzeko **lehenengo deialdia**.